



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2004ko martxoaren 2a

15. ZK.

### A U R K I B I D E A

E S A I L A:

**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Otik 3 urtera bitarteko hezkuntzaren arloan duen politika orokorrari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (3. or.).
- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak osasunaren arloan duen politika orokorrari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arte-eskoletako lantegi-maisuek eta lanbide heziketako irakasle teknikoek beste irakasle batzuekiko dituzten desberdintasunak zuzendu ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantegi-maisuek eta irakasle teknikoek eskatzen dutenari kasu egin eta horien soldata DBHko irakasleekin berdin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika aztertzeke ponentzia bat sortzea proposatzen da. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ingurunearen kutsaduraren prebentzioari buruzko foru lege proiektu bat presta dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saihesbidea egin dezan Ablitasen. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Baluarteke bezeroak euskaraz hartuak izanen direla bermatuko duen plan bat ezar dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun publikoko zerbitzu guztiak eman ditzan, eta laguntza osoa eman dezan, berriz, tratamendu onkologikoari dagokionez. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dadin aberastu ikerketarako eginiko diru publikoen ekarpenek eragiten dituzten etekinekin. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdin trata ditzan Larra-Belaguarako aurkeztu diren proiektuak. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, turismo bulegoetako lanpostuetarako euskararen balorazioari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizatearen Institutuko eta Osasunbideko zuzendari kudeatzaileen ordainsariei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (18. or.).
- Galdera, “Pabilioi urdina” deritzona itxi izanari buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egina (18. or.).
- Galdera, onkologiako tratamendu eta ikerkuntzako unitaterako kontusailak 2001ean izaniko mugimenduei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (19. or.).
- Galdera, onkologiako tratamendu eta ikerkuntzako unitaterako kontusailak 2002an izaniko mugimenduei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (19. or.).
- Galdera, onkologiako tratamendu eta ikerkuntzako unitaterako kontusailak 2003an izaniko mugimenduei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (20. or.).
- Galdera, Larrako natur erreserban jardutearen bidezketasunari buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egina (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko zerbitzu informatikoen balizko pribatizazioari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (21. or.).
- Galdera, erizain eta laguntzaile bakoitzak solairu bakoitzean zaindu behar dituen pertsona ospitaleratuen kopuruari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (22. or.).
- Galdera, Tuterako ospitaleko “Berrikuntza lanak” kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (22. or.).
- Galdera, zenbait espezialitatetako kontsultak arratsaldean jartzeak Aurrekontuetan eraginen duen kostuari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (23. or.).
- Galdera, dohainik ematen diren laguntza bidezko ugalketako tratamenduei buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (24. or.).
- Galdera, SOS Nafarroako sistema informatikoak otsailaren 14an izan zuen funtzionamenduari buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egina (24. or.).
- Galdera, turismo bulegoetara joaten diren bisitarien kopuruari eta jatorriari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (25. or.).
- Galdera, “Hotel xarmagarriak” zerbitzua ezartzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (26. or.).
- Galdera, NGA enpresa publikoarekin zerikusia duten zenbait gairi buruzkoa, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak egina (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxako kontseiluetako kide izateagatik kobratzen diren dietei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak egiten dituen bidaiei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak jaso dituen opariei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (28. or.).
- Galdera, Su-itxaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren zenbait adjudikaziori buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egina (28. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua. Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Kontseiluko kideak hautatzeko arauak. Kide horiek lehenago hautatuak izan eta kargua utzi duten kideak ordeztuko dituzte (30. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, Nafarroako Gobernuak 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntzaren arloan duen politika orokorrari buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, Nafarroako Gobernuak 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntzaren arloan duen politika orokorrari buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **JABELDURAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduak 179. artikuluan eta ondokoetan xedatuaren babesean, hurrengo Osoko Bilkuran honako jabeldura hau izapida dadila eskatu du. Nafarroako Gobernuak 0-3 urteko hezkuntzaren esparruan egin duen eta eginen duen politika orokorrari buruzkoa da jabeldura.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egoki deritzo une honetan Nafarroako Parlamentuan jabeldura bidezko eztabaida bati ekiteari, 0-3 urteko adineko eskolaurreko hezkuntzaren eta arlo horretan Nafarroako Gobernuak eginen duen politika orokorraren inguruan. Eztabaida horretan kontuan hartu beharko lirateke, gutxienez ere, honako gai hauek:

- Hiru urtetik beherako haurrak egun hartzen dituzten eta haur hezkuntzako ikastetxeen baime-na ez duten ikastetxeak egokitu egin beharko al dute eskolaurreko hezkuntza ikastetxeak arautuko dituen foru dekretuak ezarriko dituen gutxieneko baldintzetara? Zein epetan?

- Gaur egun dauden ikastetxe publikoetan eta itunduetan 2 urteko hezkuntza-irakaskuntzen eskaintza berri bat baimenduko da?

- Nafarroako zenbait herritan eraiki diren 0-3 urteko ikastetxeek, finantzaketa gobernutik, udale-tatik eta gurasoengandik jasotzen dutenek, zernolako etorkizun daukate?

- Eskolaurreko hezkuntza eta, beraz, eskolaurreko hezkuntzako ikastetxeak, hezkuntza sisteman sarturik egon behar dira, LOCEren 7. artikuluan, hezkuntza sistemaren esparrua arautzen duen horretan, esaten den bezala?

- Eskolaurreko hezkuntzako ikastetxeek Hezkuntza Departamentuaren menpe egon behar al lukete, hezkuntza-sistemaren parte den etapa batez arduratzen direnez gero, eta lehentasunez begiratu beharko al liokete etapa horren hezkuntza-izaerari?

- Eskolaurreko hezkuntzako ikastetxeei baime-na luzatzearen arloan Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari dagozkion eskumenak erabiltzeko ardura hezkuntza-administrazioarena izanen da?

- Eskolaurreko hezkuntza ikastetxeen antolaketan eta koordinazioa gainbegiratzeko zeregina Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza ikuskaritzak izanen du bere gain?

- Profesionalen oinarrizko betekizunei dagokienez, zer profesionalak jardun behar dute 0-3 urte bitarteko eskolaurreko hezkuntzaren irakaskuntzan?

- Desberdintasun sozialak konpentsatzeko eta hezkuntza premia bereziak edo ezgaitasunak dituzten haurrei laguntza goiztiarra emateko behar diren neurriak taxutu behar dira? Eskolaurreko hezkuntza ikastetxeetan arreta berariazkoa emanen zaie hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei?

Arrazoi horiek guztiak direla-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuari zuzenduriko honako jabeldura hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak 0-3 urteko hezkuntzaren esparruan egin duen eta eginen duen politika orokorrari buruzkoa.

Zehazki, honako hauek ahalik eta xehetasunik gehienekin ezagutu nahi ditugu: 0-3 urteko tartean

gaur egun dauden irakaskuntza-ereduen bizikidetzatza-egoera eta horrelako irakaskuntzak arautzeko foru dekreturik eza gainditze aldera Nafarroako Gobernuak eginen dituen proposamenak, eta zer nolako ikastetxe-eredua bultzatuko duen datozen urteotan UPN eta CDNren gobernuak.

Iruñean, 2004ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Jabeldura, Nafarroako Gobernuak osasunaren arloan duen politika orokorrari buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, Nafarroako Gobernuak osasunaren arloan duen politika orokorrari buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **JABELDURAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan eta ondokoetan xedatuaren babesean, hurrengo Osoko Bilkuran honako jabeldura honek presako tramitazioa izan dezala eskatu du. Nafarroako Gobernuak egin duen eta eginen duen osasun-arloko politika orokorrari buruzkoa da jabeldura.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak bere kezka adierazten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak eta María Kutz kontseilariak azken hilabeteotan osasun arloan izandako jokabidearen eta eginiko adierazpenen ondoriozkoa. Kezka hori dela-eta, egoki deritza Nafarroako Parlamentuan garai honetan jabeldura bidezko eztabaida bat egiteari, Nafarroako Gobernuaren osasun-arloko politika orokorrari buruzkoa. Eztabaida horren helburua da argitzea zer ulertzen duen UPN eta CDNren gobernuak Nafarroako osasun-sistemari osasun-eredu mistoa aplikatzeari buruz, eta ea eredu berri hori, defendatzen

omen duena, bateragarria ote den Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legearekin.

Jadanik inbestidura-hitzaldian, UPN eta CDNren gobernuak lehendakari Sanz jaunak esan zuen, hitzez hitz, beharrezkoa iruditzen zitzaioela "aipamen labur bat egitea gobernuaren kudeaketaren ildoak ezarriko dituen osasun-ereduari buruz". Eredu horren ardatz izanen dira, Sanzen hitzetan, "osasun-eredu mistoa deritzona, bai baliabide publikoak bai pribatuak biltzen dituen, eta osasun-gastua arrazionalizatzeko beharra".

Alegia, gobernuak lehendakariak jadanik inbestidura-hitzalditik bertatik ezarri zituen osasunaren arloan jarduteko zeuzkan lehentasunak:

- Gobernuak "misto" deituriko eredu baten bitartez jardutea, sare pribatuko baliabideak ere bildurik;

- eta aurrekontu-murrizketa egitea osasun-arloko gizarte-gastuan, "gastua arrazionalizatzeko". Hona UPN eta CDNren lehendakariaren hitzaldiaren transkripzioa:

"Lehendakari jauna, jaun-andreok, osasun-sistemari eta osasun publikoari buruzko atalean sartzeraz goaz. Puntu honetan, beharrezkoa iruditzen zait aipamen labur bat egitea hurrengo gobernuak bere kudeaketa-lana oinarritzeko erabiliko duen osasun-ereduari buruz.

Osasunaren arloan, gobernuaren jarduerak osasun-eredu misto deitzen zaiona izanen du ardatz; eredu horretan sartzen dira bai baliabide publikoak bai pribatuak. Eredu horren erdigunea herritarra izanen da, eta harreman berri bat taxutuko du gaixo/erabiltzailearen eta Nafarroako osasunaren artean, gaixoaren eskubide eta betebeharren gutunaren bitartez. Gutun horretan, bai

lehen laguntzarako bai laguntza espezializaturako, kontsultaren bermeak eta gehieneko atzerapen epeak ezarriko dira.

Oinarri hori harturik, eta gogoan izanik beharrezkoa dela gastuaren kudeaketa arrazionalizatzea gaur egungo laguntza-maila kaltetu gabe, 2005-2010 eperako osasun-plan bat onetsiko da, zeinak, Nafarroako osasunaren gaixoen eta erabiltzaileen laguntzaren kalitatea aintzat harturik, osasun-gastua arrazionalizatuko baitu.

Osasun-laguntzaren ikuspegitik, lehentasunezko jarduera-esparru gisa hartuko dira adimen-osa-suna, errehabilitazio eta laguntza soziosanitarioa, eta horiekin batera, emakumearen laguntzarako eta laguntza pediatrikorako planak hobetuko dira.

Bereziki garrantzitsua izanen da osasunaren antolaketa berria eta erreforma, Nafarroako osasunaren agentzia baten inguruan egituratua. Osasun-sistemaren erabateko kalitaterako plan bat taxutuko du. Plan hori iritsiko da osasun-arloko zentro eta zerbitzu hornitzaileetarako. Horretarako, Nafarroako osasun agentziak haiekin egiten dituen kontratuetan ezarriko da kalitatearen kudeaketa eta bermerako programa bat eduki beharra.

Gobernu berriak jarduketaren plan eta -unitate berriak garatuko ditu. Horiek osasun-plan berrian sartuko dira; adibidez, ictusarena eta garuneko eta bizkarrezur-muineko kaltearena. Halaber, Miguel Servet osasun-zientzien institutua sortuko da.

Osasunaren arloko lanbide-karrerari dagokionez, osasun-lanbideei eta esparru-estatutuari buruz etorkizunean eginen diren lege berrien arabera garatuko dira lanbide-karreraren ereduak.

Azkenik, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren eginkizunak indartu eginen dira, arlo honetan organo eskudun den aldetik; horretarako, lan-osasuneko planak garatuko dira”.

Lehendakariaren hitzaldian ez zen ezer aipatu Nafarroako plan onkologikoaren aplikazioari buruz. Plan hori Nafarroako Gobernuak 2001eko ekainaren 11ko bilkuran onetsi zuen, eta 2001-2005 eperako Nafarroako II. osasun planaren barruan kokaturik dago. Plan horrek “minbiziaren aurkako borrokaren jarduera-ildoak ezartzen ditu datozen urteetarako, landu beharreko hiru ardatzen inguruan: prebentzioa, diagnostiko goiztiarra eta gaixoei bideraturiko laguntza, zentro onkologiko berri bat barne, zeina Iruñean kokaturik egon behar baita, Nafarroako Ospitalearen eraikin-multzoaren barruan”, Nafarroako Gobernuak erabaki horri buruz ateratako prentsa-oharrak dioenez.

Aipaturiko zentro onkologikoa bi fasetan eraikiko zen, “bi fase horiek bata bestetik bereizita egiten dira, halako moldez non erradioterapia-zerbitzu berria aurki hasi ahalko baita funtzionatzen, obra guztiak bukatu arte (2003. urtearen bukaerara) itxaron behar izan gabe. Gobernuak jadanik 4,2 milioi euro (699 milioi pezeta) inbertitu ditu horretarako beharrezkoa den ekipamenduan”, zioen gobernuak 2002ko irailean.

Zentro onkologikoaren egoerarengatik kezkatuta, talde sozialistak zentro onkologikoari buruzko jabeldura bat aurkeztu zuen 2003ko urrian. Izan ere, Nafarroako Gobernuak 2001eko ekainean onetsirikiko plan onkologikoaren funtsezko elementua zen zentro hori. Hona jabelduraren testua:

“2001eko irailean jakin genuen eraikin berri bat egiteko asmoa zegoela Nafarroako zentro onkologikoa bertan kokatzeko. Zentro horrek erreferentzia izan behar zuen minbiziaren tratamendu anbulatoriorako Nafarroan, eta erradioterapia eta kimioterapiako tratamenduak egiteko behar diren instalazioak hartu behar zituen.

Nafarroako Gobernuak 2001eko ekainean onetsi zuen plan onkologikoa, eta horren aurreikuspenen arabera 2003. urtearen hasieran jarriko zen abian zentroa.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen iritziz osasun arloko azpiegitura horiek gauzatzea garrantzi handikoa da Nafarroako Foru Komunitatearentzat, minbizi lehentasuna duten arazoetako bat delako, eta heriotza eragileetan bigarrena gure erkidegoan; azpiegiturak egiteko prozesua moteltzea edo geldiaraztea benetako atzerapena da eritasun horren kontrako borrokan.

Proposatzen den testua Aurrekoa dela-eta, jakin nahi dugu zein diren Nafarroako Gobernuaren jarduketak eta aurreikuspenak, edukiarenak zein denborari dagozkionak, 2001eko ekainean onetsitako plan onkologikoa gauzatzeko”.

Jabeldura hori 2004ko otsailaren 5eko Osoko Bilkuran eztabaidatu zen, eta bertan, Osasun kontseilari María Kutz andreak parlamentariak eta gizartea “lasaitu” nahi izan zituen, eta esan zuen ez zegoela aldaketarik plan onkologikoaren aplikazioari eta zentro onkologikoaren eraikuntzari buruz gobernuak eginiko aurreikuspenetan, eta horretarako obra 2005ean hastekoa zela.

Hurrengo astean, gobernuaren lehendakariak gai horri buruz gobernuak dituen plan berriak iragarri zituen; esan zuen zentro onkologikoa ez zela “ez nahitaezkoa, ezta beharrezkoa ere” kalitatezko zerbitzu baterako, eta zentro onkologiko bat erai-

kitzearen beharra arbuaiatu zuen; halako zentroa beharrezkoa ez zela esan zuen, Nafarroako gizar-teak jadanik bazituelako minbiziaren arloko laguntzarako baliabideak, Nafarroako Unibertsitate Klinikian.

Ondorioz, talde sozialistaren ustez, zentro onkologikoaren aferak erakusten du UPNk eta CDNk osasun-eredu mistoaren aldeko apustua egin dutela, gobernuko lehendakariak bere inbestidura-hitzaldian defendatu zuenari jarraikiz, zeinaren arabera sare publikoa sare pribatuak puntapuntako gaietan (ikerketa eta tratamendu aurreratu onkologikoa, kasu) lorturiko aurrerapenen baitan gelditzen baita. Hori sozialistok defendatzen dugun osasun-sistema publikoarentzat atzerapauso nabarmena da, eta bere isla dauka Osasunari buruzko Foru Legean.

Baina hori ez da Nafarroako Gobernuak Nafarroako osasun-sistemari eredu misto baterantz eman nahi dion bultzadaren erakusgarri bakarra, ez eta osasun publikoaren aldekoek kezkatzeko daukaten arrazoi bakarra ere. Aurrekoari gehitu behar zaizkio azken hilabeteotan salatzen ari garen aurrekontu-murrizketak; gizarte- eta osasun-gastuen eta Barne Produktu Gordinaren arteko proportzioaren beherakada; plan soziosanitarioaren aplikaziorik eza; landa-inguruneetako larrialdietako osasun-garraioaren zerbitzuaren murrizketak; landa-inguruneetako laguntza pedia-

trikoaren murrizketak; hitz emandako osasun-etxeak ez eraikitzea; adimen-osasuneko laguntzaren defizita; itxaron-zerrenden iraunkortasuna; kontusail batzuetako gastuaren (bereziki, farmazi gastuaren) kontrolik eza; osasun-laguntzako sare pribatuarekin sinaturiko hitzarmenen eta kontzertuen gastuaren gorakada...

Horrek guztiak erakusten du, gure iritziz, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak taxaturiko Nafarroako osasun-sistemaren gaur egungo ereduaren etorkizuna arriskuan dagoela, eta, hain zuzen ere, orain, beste inoiz baino gehiago, gure osasun-sistema publikoa aldarrikatu eta defendatu behar dugula, herritar orok osasunerako duen eskubidearen ororengatzearen berme-emaille gisa. Nafarroako Gobernuaren eta, bereziki, bere lehendakari Sanz jaunaren azken ekintzek zalantzan ipintzen dute osasun-eredu publikoa.

Horrenbestez, jabeldura hau aurkezten zaio Nafarroako Gobernuari, berak egin duen eta eginen duen osasun-politika orokorrari buruzkoa, eta gaur egungo osasun-eredu publikoa berrikusteko eta haren orde z sare pribatuak zeresan handiago izanzen dueneko eredu misto bat ezartzeko duen asmoari buruzkoa.

Iruñean, 2004ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da arte-eskoletako lantegi-maisuek eta lanbide heziketako irakasle teknikoek beste irakasle batzuekiko dituzten desberdintasunak zuzendu ditzan.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da arte-eskoletako lantegi-maisuek eta lanbide heziketako irakasle teknikoek beste irakasle batzuekiko dituzten desberdintasunak zuzendu ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 193. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Azken urteetan hezkuntza sisteman izan diren erreformen ondorioz, arte eskoletako lantegiko maisu-maistrak eta lanbide heziketako irakasle teknikoak lanbide heziketa berriko lanbide moduluetan eskola teorikoak eta praktikoak ematen hasi dira, bigarren hezkuntzako irakasleekin batera; eta gertatu da bi irakasle talde horiek antzeko eginkizun edo eginkizun berberak edukita ere, ez dituztela jasotzen lansari berak eta ez dutela lan egiten lan-baldintza edo lanbide promozioiko baldintza beretan.

Antzeko egoeran daude derrigorrezko bigarren hezkuntzako (DBH) lehen zikloan irakasten duten maisu-maistrak, zeren eta, batxilergoko edo bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoetako irakasleen eginkizun berak izanda ere, ez baitzaizkie ordainsari-eskubide berak aitortzen.

Egoera horiek, "lan berarengatik ordainsari bera" delako printzipioa urratzen dutenak, behin eta

berriz azaldu zaizkio foru erkidegoko administrazioari, eta gaur egun administrazio horren negoziatziarako mahai orokorrean dauden sindikatu guztiek ere planteatu dituzte, hain zuzen ere eginkizun berak betetzen dituzten irakasle-taldeen artean pixkanaka lansariak berdintzen joan daitezzen.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du behar diren neurriak har ditzan lansarrietan, lan-baldintzetan, lanbide-promozioan nahiz bestelako eskubideetan eginkizun berdinak betetzen dituzten irakasleen ondoko taldeen artean dauden ezberdintasunek sorturiko egoera zuzentzeko: batetik arte eskoletako lantegiko maisu-maistren eta lanbide heziketako irakasle teknikoen eta bestetik bigarren hezkuntzako irakasleen artean; eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako (DBH) lehen zikloan irakasten duten irakasleen eta eginkizun berak betetzen dituzten bigarren hezkuntzako irakasleen artean.

Iruñean, 2004ko otsailaren 13an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da lantegi-maisuek eta irakasle teknikoek eskatzen dutenari kasu egin eta horien soldata DBHko irakasleekin berdin dezan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da lantegi-maisuek eta irakasle teknikoek eskatzen dutenari kasu egin eta horien soldata DBHko irakasleekin berdin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Haren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da DBHko lehen zikloan irakasten ari diren maisu-maistren, arte eskoletako lantegiko maisu-maistren eta DBHko Lanbide Hastapen Programetan edo heziketa zikloetan ari diren irakasle teknikoen soldatak DBHko irakasleen soldatekin pareka ditzan, horretarako egin diren eskaeren arabera.

Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren menpean dauden irakasleen artean, 900 irakasle inguru daude Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eginkizun, ordutegi, dedikazio eta erantzukizun berarekin lan egin baina

soldata nabarmen txikiagoa jasotzen dutenak. Talde hori osatzen dute DBHko lehen zikloan irakasten duten maisu-maistrek, arte eskoletako lantegiko maisu-maistrek eta DBHko Lanbide Hastapeneko Programetan edo heziketa zikloetan irakasten duten irakasle teknikoek.

Soldaten parekatze hori funtzionarioek jasotzen duten irakaskuntzako osagarri berriazkoa gehituz egin behar da. Soldata gehikuntza hori foru legez egin behar da, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko 104. artikuluan xedatuaren babesean; izan ere, artikulua horrek ezartzen du irakaskuntzako osagarri berriazkoa ematea eta haren zenbatekoa zehaztea foru legez eginen direla.

Horregatik guztiatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du DBHko lehen zikloan irakasten ari diren maisu-maistren, arte eskoletako lantegiko maisu-maistren eta DBHko Lanbide Hastapen Programetan edo heziketa zikloetan ari diren LHko irakasle teknikoen soldatak DBHko irakasleen soldatekin parekatzeko eskariarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurreko puntuan aipaturiko taldeen soldatak bigarren hezkuntzako irakasleek dituztenekin parekatzeko aldarrikapenak aintzat har ditzan; eta Nafarroako Parlamentura foru lege proiektu bat igor dezan mailako irakaslearen titulazioaz bestelako tituluarekin DBHn eskolak ematen dituzten irakasle taldeek soldata bera izan dezaten.

Iruñean, 2004ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika aztertzeako ponentzia bat sortzea proposatzen da.**

### **ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika aztertzeako ponentzia bat sortzea proposatzen da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkurak onetsi dezan. Mozioaren bidez proposatzen da Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean

ponentzia bat sor dadila, Nafarroako administrazio publikoetan aplikatuko den hizkuntza-politikari buruzko adostasunerako diagnostikoa eta oinarriak ezarriko dituen.

Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikaren garapena aztertzeako ponentzia bat sortzeko proposamenaren azalpena:

Hizkuntza-politikak lantzearen helburu nagusia da administrazio publikoek neurri-multzoko bat aplikatzea administrazio horiek eskudun diren lurraldean mintzaturiko hizkuntzen normalizazioari begira.

Nafarroako hizkuntza-errealitatea begi-bista-koa da; bi hizkuntza erabiltzen dira: gaztelania, nagusitasuna duena eta administrazioaren arlo guztietan erabilia, eta euskara, biztanleen % 12rentzat erabilera normalekoa dena, baina administrazioaren arlo guztietan erabiltzen ez dena.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, hain zuzen ere joan den abenduan 18 urte bete zituen arren oraindik adingabe den horrek (izan ere, nahiz eta euskaldunen hizkuntza-eskubideen aitorenari dagokionez hutsune handiak dituen, posible egin du hizkuntza-politika eskas baina nafar guztien hizkuntza-eskubideak



errespetatzeko neurriak hartzearen aldekoa gartzea, soilik 1998ra arte, alabaina), honako ideia hauek jasotzen ditu bere hitzaurrean:

“Hizkuntza fenomenoaren izaera dinamikoak eta bertan parte hartzen duten faktoreen zailtasun eta aniztasunak, etengabeko gorabeherak sortu dituzte historian barna komunitateetako hizkuntzen zabalera eta indarrari dagokienez: batzuen hedakuntza eta besteen atzerakada, batzuetan hizkuntzaz kanpoko arrazoiek eraginak, dudarik gabe dira nabarmenenak. Aldaketa hauetan, maiz komunikazioaren oinarri diren kontrako jarrerak izan dute esku. Jarrera hauek, hizkuntzetan arazoirik gabe elkarrengandik urruntzeko indarra aurkitzen dutenek, edo hizkuntz aniztasunak berekin daukan barne-barneko aberastasuna ikusteko gauza ez direnek bultzatu dituzte.

Nafarroa bezala beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondrazten diren Komunitateak, altxor hori begiratu eta babestera behar-tuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragoz-tera ere. Baina ondare horren zaintzea ezin daiteke egin, ezta behar ere, hizkuntzen arteko borroka eta gatazkaren bidez; aitzitik eta Konstituzioaren 3.3 artikulua ezartzen duenari jarraiki, errespetu eta babes berezia behar duten ondarea direla aitortuz”.

Alabaina, Nafarroako Gobernuak arduradunen jarrera eta hizkuntza-politikaren zuzeneko kudea-keta gatazkaren ildotik bideratu dira. Lehen hamar urteetan legeak izandako garapena oso eskasa izan da, eta gizartearen eskaeraren atzetik joan da uneoro. Baina, 1999an, Nafarroako Gobernuak bere politika aldatu zuen, eta 135/1994 Dekretua aldatzea erabaki zuen. Horren orde, beste bat inposatu zuen, artikulua guztietan Nafarroako euskaldunen hizkuntza-eskubideak urratzen zituena, administrazioan sartzera euskara balioestek gaztelaniadunak diskriminatzen zituela aitzakia gisa harturik, inolako azterlan edo datutan oinarritu gabe.

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako gaur egungo zuzendari nagusiak, 1997-2002 oroit-idazkian (13.-15. orrialdeak), hizkuntza-politikari buruzko kontzeptu berria azaltzen du, Europan beste inon aurkitzekoa ez den interpretazioa eginez, Nafarroako Gobernuaren oniritzi eta onarpena duena.

“Nafarroako Gobernuak, Nafarroako gizarteak demokratikoki hautaturiko ordezkaria den aldetik, gizartearen hizkuntzen inguruan sortzen diren egoeren eta arazoaren aurrean izan behar duen arretazko jarrera sistematikoa, zorrotza eta antolatua, hizkuntzen irakaskuntza, garapena, erabilera eta

balioespenari buruzko erabakietan gauzatua”, eta ondoren eranstean du “beraz, euskarari buruz ari gara eta, gaur egun, baita, zehazki, ingeles, frantses eta alemanari buruz, eta horrez gain, espainierari buruz, espainieraren kanpo-eskaera pentsatu ezineko mailetara iristen ari baita, nahiz eta hala dagokion bostehun milioi hiztun baino gehiago dituen espainiera bezalako hizkuntza bati, zeinak izugarritzko aberastasuna sortzen baitu; behintzat, unibertsitatearen eta hizkuntzaren ikuspegietatik”.

Interpretazio horrek guztiz desitxuratzen du hizkuntza-politikaren zeregina: nafarrek erkidego-ko bi hizkuntzetako edozeinetan hartuak izateko daukaten eskubidea bermatzea, zeren eta, beste kontu batzuetarako, hala nola atzerriko hizkuntzen irakaskuntzarako, Nafarroako Gobernuak berriazko antolaketa-egiturak baitauzka.

Espainiako Gobernuak 2001eko otsailaren 2an berretsi zuen Eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna, eta urte hartako abuztuaren 1ean hartu zuen indarra. 7. artikuluan agertzen da alderdi sinatzaileek haien politika, legedi eta praktikaren oinarritzat hartuko dituzten helburu eta printzipioak zein diren.

Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoak 2004ko urtarrilean aurkeztu zuen Nafarroara 2003ko martxoaren 28an egindako bisitari buruzko txostena. Txosten horretan honako iritzi hau jaso du:

“Euskararen egoera oso kezagarria da Nafarroako Foru Komunitatean... Egia da ez dagoela hizkuntza-politika idealik, lurralde eta gizarte bakoitzak bere berezitasunak baitauzka; baina Europak ezin du onartu hizkuntzaren garapen eta normalizaziora bideraturiko prozesu batean atzerapausoak ematerik, helburutzat dutenak hizkuntza indartsuenari pribilegiozko bere statusa berriro ematea. Hori onartezina da”.

“Nafarroako Foru Komunitateak duen esku-men-sistema abiapuntu sendoa eta behar adinako da Eremu urriko hizkuntzen Europako Gutunak jasotzen dituen gutxienekoen oso gaitetik euskararen erabilera garatu eta normalizatzea bideraturiko hizkuntza-politikak gauzatzeko; hala eta guztiz ere, azken urteotan, bertako kudeatzaileei ez zaie behar adinako borondaterik antzematzen politika horien buruzagitzak aurrera eramateko. Aitzitik: EBLULEk politika murriztaile eta atzera-koia nabaritu du euskarari dagokion orotan”.

Azkenik, gomendio-multzo bat adierazi du:

1. Euskararen erabilera politikoa amaitzea. Hizkuntza baten erabilera haren hiztunei dagokie,

eta hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko aukera ezin da inoiz utzi administrazioaren eskuetan, are gutxiago haren zuhurtziarakotasunaren baitan.

2. Diskriminazio positiboa. Abiapuntua gainerakoek baino baxuagoa duen errealitate bat indartzeko xedez administrazioak gauzaturiko ekintzen multzoa da. Jatorrian dagoen desberdintasun hori dela-eta, normalki diskriminazio-urte luzeen ondoriozkoa, beharrezkoa da kalteturik dagoenaren alde jokatzeko, zeren eta, bestela, berdintasuna ez bailitzateke inoiz erdietsiko, eta iraganean izandako abusua saritzen duen jokaera bati eutsiko bailitzaike etengabe.

3. Departamentu arteko administrazio-organo bat eratzea, Gutunean eta Euskarari buruzko Foru Legean ezarritako printzipioen arabeko hizkuntza politika planifikatu eta gauzatzeko zeregina izanen duena.

4. Nafarroako Foru Komunitatean euskara garatu, defendatu eta sustatzeko zereginen diharduten eragileekin harremanak normalizatzea.

5. Eremu ez-euskaldunean euskarazko irakaskuntza publikoa ahalbidetzea, betiere borondatez-kotasun eta proportzionaltasun irizpideen arabera.

Proposatutako erabakiaren testua:

1. Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikaren garapena aztertzeko ponentzia bat eratzea Hezkuntza Batzordean.

2. Ponentziaren lanaren xedea izanen da euskarak honako esparruetan duen egoera aztertzeko:

– Administrazio publikoei euskaraz zuzentzea bere borondatez erabakitzen duen herritarrari ematen zaion zerbitzua.

– Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikasketak euskaraz egiteko aukera lurralde guztian eta borondatez-kotasun-irizpideen arabera bermatzeko aplikatu beharreko neurriak.

– Nafarroan euskaraz emititzen duten komunikabideen presentzia legezkoa izatea bermatzeko aplikatu behar diren neurriak.

– Nafarroak berezko dituen bi hizkuntzak Nafarroako Gobernuaren administrazio birtualean erabiltzea bermatzeko aplikatu behar diren neurriak.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz ikasteko aukera bermatzeko aplikatu behar diren neurriak.

3. Parlamentu-taldeek beren proposamenak aurkeztuko dituzte, lana bera eta proposamenei buruzko eztabaida zehazteko.

4. Ponentziak askotariko pertsona, aditu eta gizarte-eragileei euren iritzia eta proposamenak eskatu ahalko dizkie.

5. Eginarazitako lana amaituko da gehiengoak onetsiriko ondorioak eta proposamenak biltzen dituen txosten bat eginda. Adierazten diren boto partikularrak ere jasoko ditu dokumentu horrek. Lan hori egiteko epea hiru hilabetekoa izanen da, eta luzatu ahalko da.

Iruñean, 2004ko otsailaren 16an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ingurunearen kutsaduraren prebentzioari buruzko foru lege proiektu bat prestatzea.**

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ingurunearen kutsaduraren prebentzioari buruzko foru lege proiektu bat prestatzea".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Kiotoko Protokoloaren aplikazioari dagokionez Espainiak Europako Batasunarekin dituen konpromisoak direla-eta, Espainiak horiek bete behar izatearen kinkarekin topo egin du. Espainiak hartu zuen konpromisoa izan zen, errepikatzearen errepikatzeaz ezaguna den bezala, atmosferara kanporatuko zituen CO<sub>2</sub> emisioen gehikuntza % 15era murriztea 2012an, 1990eko erregistroak erreferentzia gisa hartuz. Horregatik, orain, emisio horiek azken urteotan % 40 gehitu ondoren, egoera zaila bihurtu da.

Probleman zeresana daukate, produkzio-sektoreka, honakoek: elektrikoak, siderurgikoak, paperarenak, errefinatuek, zementuarenak eta zeramikarenak.

Beira eta zeramikaren ekoizpenean diharduten enpresek diote beraiek direla, printzipioz, Kiotoko Protokoloa betetzeari begira behar bezalako erantzuna emateko ahalmen txikiena dutenak. Zementuaren industrian, CO<sub>2</sub> emisioen % 66 produkzio-prozesutik dator, eta enpresaburuek ezinezkotzat jotzen dute Espainian eta beraien sektorean emisioak Kiotoko Protokoloak agindu bezala murriztea. Paperaren eta papererako orearen industriak

eta siderurgiak, haien enpresaburuen arabera, zuzeneko CO<sub>2</sub> emisioak murrizteko ahalmen mugatua omen daukate.

Horra bada egoera, sektorerik kutsagarrienetako enpresen ikuspegitik. Foru Komunitatean badaude produkzio-sektore horiekin lotura zuzena daukaten enpresak: hain zuzen, papergintza, zementu, beira eta siderometalurgiarekin.

Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunak konpromiso publikoa hartu zuen parlamentu honetan, esan zuenean bere gobernuaren lehentasunezko helburua izan den delat ingurumenaren kalitateari eustea, planak eta proiektuak garatzea eta prebentzio eta kutsadurari buruzko legean xedaturikoa abiaraztea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ingurumenaren kutsaduraren prebentzioari buruzko foru lege proiektu bat bidal diezaion lau hilabeteko epean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat egin dezan produkzio-sektore kutsagarriekin zerikusia daukaten enpresekin, negutegi-efektuko gasen isurketa murrizteko eta Kiotoko Protokoloa betetzeko.

Iruñean, 2004ko otsailaren 17an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saihezbidea egin dezan Ablitasen.**

### ***IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU***

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saihezbidea egin dezan Ablitasen".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurra Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaidatzeko:

2004ko otsailaren 6an, Ablitasko Udaletxean eginiko Osoko Bilkura batean, udalean dauden taldeek aho batez mozio bat onetsi zuten, zeinaren bitartez, besteak beste, honakoa eskatzen baita: "Nafarroako administrazioarekin batera beharrezkoak diren urratsak eman daitezela saihebidetarako bat eraikitzeko".

Saihebidetarako bitartez, industrialdera iritsi ahal izateko herri-gunetik igarotzen den trafikoa astuna kenduko litzateke. Halaber, Ribaforada parean N-232 errepidea mozten den bakoitzean, trafikoa Ablitastik desbideratzen da, Tuterara edo

Tarazonara iristeko. Saihebidetarako horri esker, kamioiek eta traktoreek herriaren erditik (non, gainera, kultur etxea kokaturik baitago) gehiago igaro behar ez izatea lortuko genuke.

Hori dela-eta, IUN/NEBren parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ablitasko Udaleko Osoko Bilkurak eginiko eskaera aintzat har dezan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ablitasko saihebidetarako proiektua taxutzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezar ditzan sei hilabeteko epean, obra horren exekuzioa 2005eko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan txertatu ahal izateko.

Iruñean, 2004ko otsailaren 18an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Baluarteko bezeroak euskaraz hartuak izanen direla bermatuko duen plan bat ezar dezan.**

**ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Baluarteko bezeroak euskaraz hartuak izanen direla bermatuko duen plan bat ezar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izateko, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu

du dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Gauza ezaguna eta nabaria da Nafarroan bi hizkuntza ofizial daudela: euskara eta gaztelania. Baluarte-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioa kultur erakunde bat da, eta bertarako sarbidea daukate, besteak beste, nafar guztiek, foru lurralde osokoek, eta ez soilik eremu ez-euskaldunekoek. Beraz, erakunde elebiduna behar du izan, nafar guztien eskubide guztiak errespetatu ahal izateko.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea plan bat ezar dezan, zeinak bermatuko baitu Baluarteko bezeroak euskaraz ere zerbitzatzea. Plan horrek, besteak beste, honako puntu hauek ere hartuko ditu barnean:

1.1. Euskaraz erantzutea hala nahi duten erabiltzaileei, bai lehiatilan, bai telefonoan.

1.2. Megafonia bidez ematen diren mezuak bai euskaraz bai gaztelaniaz grabatuko dira.

1.3. Eraikin guztiko errotulazioa, gutxienez ere, euskaraz eta gaztelaniaz izanen da.

1.4. Baluarteak argitaratzen dituen informazio-liburuxkak euskaraz eta gaztelaniaz eginen dira, gutxienez ere.

1.5. Baluartearen web gunea euskaraz eta gaztelaniaz izanen da, gutxienez ere.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea plan hori parlamentu-talde guztiei bidal diezaien erabaki hau onesten denetik hasita sei hilabeteko epean.

Iruñean, 2004ko otsailaren 18an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun publiko zerbitzu guztiak eman ditzan, eta laguntza osoa eman dezan, berriz, tratamendu onkologikoari dagokionez.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun publiko zerbitzu guztiak eman ditzan, eta laguntza osoa eman dezan, berriz, tratamendu onkologikoari dagokionez".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Minbizia daukaten pertsonen duintasunak eta administrazio publikoak zor dien seriotasun eta sentiberatasunak administrazio hori behartzen dute haien beharriari egokituriko eskaintza integralari dagozkion egiturak garatzera, minaren tratamendurako terapiak eta minbiziaren tratamenduren arloan garatzen ari diren gainerako terapia

guztiak —medikuntza nuklearretik kimioterapiaraino— barne.

Estatistika-datuek, gaixotasun hori daukaten pertsonen, haien tratamenduen aniztasunari eta sendakuntzei buruzkoek, adierazten dute beharrezkoa dela tratamenduaren jarraitasuna ikuspegi integral batetik antolatua egotea eta, beraz, baztertzekoa litzateke eskaintza partzial bat, baita ikuspegi terapeutikotik ere.

Medikuntza publikoaren eta pribatuaren arteko bizikidetasuna oinarritu behar da lankidetzan eta eskariari kasuan kasuko eskaintza ahalik eta hobekien egokiturik egotean. Baina gizarte moderno orotako baldintza da, Konstituzioan bertan jasoa, osasun-laguntzarako eskubide unibertsala, eta eskubide unibertsal horrek nahitaez osasun publikoaren eskaintza integrala izan behar du oinarri. Osasun pribatua izan daiteke osasun publikoaren ordezkari alternatiba eta, kasu bakoitzaren arabera, osagarri.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak honakoa erabaki du:

Nafarroako Gobernua premiatzea osasun publikoak tratamendu onkologikorako, hau da, minbiziaren aurkako tratamendurako, zerbitzu guztiak eta laguntza eta babes integrala eskaini ditzan Nafarroako osasun publikoaren erabiltzaile guztientzat, bizi diren eskualdean bizi direla ere, eta, horretarako, behin betiko onets dadila Plan Onkologikoa eta, beraz, bertan aipatzen den zentroa eraikitzeari ekitea.

Iruñean, 2004ko otsailaren 19an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ez dadin aberastu ikerketarako eginiko diru publikoen ekarpenek eragiten dituzten etekinekin.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ez dadin aberastu ikerketarako eginiko diru publikoen ekarpenek eragiten dituzten etekinekin".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalgo dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Aralar parlamentu-taldeak eginiko jabeldurari erantzunez, Nafarroako Gobernuak lehendakari Sanz jaunak CIMA Fundazioarentzako laguntzak Nafarroako plan teknologikoetan txertatu zituen. Hartara, esan zuen eraikina egiteko emandako 1.502.000 euroko dirulaguntza Nafarroako lehen plan teknologikotik zetorrela. Eta Nafarroako Gobernuaren 2003ko apirilaren 14ko erabakiaz onetsitako bigarren plan teknologikoan sartu zuen lehen plan teknologikoaren bidez lagundutako zentro teknologikoak sendotzea; haien artetik, CIMA aipatu zuen berariaz. Biomedikuntzaren arloa sektore estrategiko moduan jaso zuen berariaz.

Hala eta guztiz ere, kontua da funtsezko ezberdintasun bat dagoela plan teknologikoetan bildutako gainerako lau sektore edo atalen eta biomedikuntzaren sektorearen artean. Bai nekazaritzarako bioteknologia, bai energia berriztagarriak zein automozioa edo kontserba begetalak

sektore benetan garrantzitsuak dira Nafarroako industrian; erantsi beharko genuke, gainera, presentzia handiena duten sektoreak direla, Nafarroako sektore industrialaren dibertsifikazio txiki eta eskasaren ondorioz. Baina kontuan hartu behar da biomedikuntzak, edo zehazkiago farmaziaren industriak, oso leku eskasa duela Nafarroan. Horrenbestez, ikuspuntu estrategikotik eta garapenaren ikuspuntutik ere CIMA Fundazioaren helburuek ia guztiz Nafarroatik kanpoko eragina izanen dute, aurreikuspenen arabera, eta, batez ere, ez dira Nafarroaren garapen-egituratik sortu eta ez diote egitura horri onik ekarriko.

Bestalde, zentro hori ustiatzeko eratu den enpresen aldi baterako batasunean, non SODENA eta Corporación Caja Navarrak partaidetza duten, aurreikusita dago epe batean ikerketaren emaitzen merkataritza-ustiapenak finantzen itzulketa ekarriko duela. Biomedikuntzaren arloko balizko patenteen edo asmaketen merkataritza-ustiapenean oinarrituriko itzulketa horiek, ordea, errefusa ideologiko sakonena eragiten dute gaur egun. Mundua eskualde garatuen eta ez-garatuaren artean banatuta egotea —alegia, eskualde aberats eta esplotatzailea eta txiro eta esplotatua—, iparraren eta hegoaren arteko banaketa, garrantzi handiko mugimenduen oinarri ideologikoa da, Askapenaren Teologiatik hasita; eta intelektual, ikerlari eta gure garaiko zientzialari askoren kezka nagusia ere bada. HIESa herrialde garatuetan nabarmenki kontrolatzen hasia den bitartean Afrikako kontinente osoan hildakoen kopuru izugarria eragitearen eskandalu handiak edo legenarraren hondarrek zalantzan jarri dute biomedikuntzaren arloko patenteen eta asmaketen merkataritza-erabilerari buruzko nazioarteko sistema osoa. Osasunaren Munduko Erakundea eta ikerlari, zientzialari, intelektual eta gizarte mugimenduetako estamentu garrantzitsuak zalantzan jartzen ari dira edo berraztertzen ari dira medikuntzaren arloko asmaketen eta patenteen merkataritza-ustiapena dela-eta izan dituzten jarrerak. Nafarroak ere mundu mailako mugimendu horietan egon behar du. Hain zuzen ere, auzia Gobernuak lehendakari Sanz jaunak arestian aipaturiko jabelduran esaten zuenaren kontrakoa da; izan ere, "zientziak ez du ideologiarik" leloak ezkututzen duen boutadearen atzean babesten zen. Zientzia, aitzitik, eta batez ere haren fruituak, iraultza bat merezi lukeen

zapalkuntza edo bidegabekeria baten funtsezko osagaia dira; HIESa, izurritea edo gosea bera adibide egokiak izan daitezke.

Opus Deiren ingurune ideologikoetan beretan ere, eta, batez ere, giro horiek berriki utzi dituzten pertsonen erreakzioetan, funtsezko kezka bat dago: jatorri eta ustezko helburu erlijiosoak dauzkan mugimendu batek ezin ditu begiak itxi eta eguneroko bizitza pertsonalaren erreferentzietan ezkutatu, gizon-emakumeen erdiek baino gehiagok pairatzen dituzten miseriak ahaztuta.

Profeta dohainik ez da behar iragartzeko ezen, XIX. mendeko garapen liberalaren askatasun formalak jesuiten burdinazko kontrola lekuz kanpo utzi zuen bezala —hain zuzen ere mendebaldean absolutismoak ilustraziora arte egituratu zituena—, Askatasunaren Teologiak ere erlijioaren fair playaren atsegin indibidualistari ere irabaziko diola, hain zuzen ere gizakien arteko ezberdintasunak ez ikusteko antzinako erreferentzietako gortinez (abortuaren aurkako jarrera, eutanasiaren aurkako, dibortzioaren aurkako eta abar) begiak estaltzen dituen horrixek.

Laburbilduz, Nafarroan, non biomedikuntzaren edo farmakologiaren arloko patenteen edo askaketen garapenak ez duen industriarako interes estrategikorik, plan teknologikoetako gainerako

lau ikerketa ataletan gertatzen denaz bestera, funts publikoek ez dute zertan loturarik izan behar nazioarteko giro intelektualean eztabaidatzen den negozio bat sorraraziko duen jarduera batekin, ez eta gizartearen maila gero eta gehiagotan gaizki ikusten den jarduera batekin.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak honakoa erabaki du:

Nafarroako Gobernua premiatzea “Medikuntza Aplikatuako Ikerketa Zentroaren” jabea den CIMA Fundazioko partaidetzan, harekiko kolaborazioan eta hari funts publikoetatik emaniko dirulaguntzetan, bai eta SODENAK eta Nafarroako Kutxa Korporazioak ikerketa horiek merkatuan ustiatzeko eginiko enpresen aldi baterako batasuneko partaidetzan —FUNAREkin (Ikerketarako Fundazioa) batera—, ondoko irizpidea har dadin helburu:

Ikerketa horretatik irabazi ekonomikorik ez ateratzea, eta parterik ez izatea ikerketa horretatik lor litezkeen onura ekonomikoetako bakarrean ere. Hau da, printzipio moduan ezartzea egindako ikerketen fruituak gizateria osoaren eta, batez ere, herrialde ez-garatu deitzen ditugun eskuetan utzi behar direla.

Iruñean, 2004ko otsailaren 19an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdin tratatuzan Larra-Belaguarako aurkezten diren proiektuak.**

### *EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdin tratatuzan Larra-Belaguarako aurkezten diren proiektuak”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingarumen Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Ipar eskiko zentro bat egiteko aukera dela-eta Larra-Belaguako lekunearen egoeraz asko eztabaidatu da parlamentu honetan, bai legegintzaldi honetan bai aurrekoan ere. Era berean, eztabaida horretan, argi geratu da beharrezkoa dela baliabideak ipiniz eta konpromisoa agertuz ekin behar dela eskualde pobretuetan, hizpide duguna bezalakoetan.

Larrako natur erreserba eta haren babespeneko bazter-eremua berriz mugatzeari buruzko Legea onetsi ondoren, inori ez zaigu oharkabean pasa hurrengo urratsa ipar eskiko zentrorako proiektuaren aurkezpena dela, horixe izan baita legea aldatzearen xede nagusia.

Beraz, Eusko Alkartasuna parlamentu-talderen aburuz, positiboa litzateke proiektu bat baino gehiago egotea, ingurumenaren, gizartearen eta bideragarritasunaren ikuspegietatik irizpide objektiboen arabera zehaztu ahal izan dadin zein den

proiekturik onena. Halaber, eskualdeko plataformek eta biztanle-taldeek proiektu bat aurkezteko egiazko aukera izan dezaten bermatu beharko litzateke.

Horrenbestez, mozio hau onesteak proiektu-aukeraketaren emaitza ibarrarentzat onena izatearen bermea ekarriko duela irmoki sinetsirik, eta gauza ezaguna denez proiektu bat baino gehiago aurkezteko asmoa dagoela, bermatu nahi dugun eskubidea da aurkezten diren proiektuek aukera tekniko eta ekonomiko berberak izatea erakundeen eta proiektu-sustatzaileen arteko lankidetzaren bitartez prestatuak eta ebaluatutakoak izateko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du behar diren bitarteko ekonomiko eta teknikoak ipin ditzan posible izan dadin eskualde horretan Larra-Belaguarako ipar eskiko proiektu bat aurkezteari begira sorturiko herri-ekimeneko proiektu guztiek tratatu, baliabide eta Nafarroako Gobernuaren lankidetzaren ekonomiko bera izan dezaten haien prestaketarako.

– Aurkezturiko proiektuak ingurumenari, gizarteari eta bideragarritasun ekonomiko eta sozialari dagozkien irizpideen arabera ebaluatuko dira.

Iruñean, 2004ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, turismo bulegoetako lanpostuetarako euskararen balorazioari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak turismo bulegoetako lanpostuetarako euskararen balorazioari buruz egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilariak ahoz erantzun dezan Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran:

Zioak.

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emandako urtarrilaren 29ko 190/2004 Ebazpenak turismo enpresa eta jardueren teknikarien zerrenda bat hauta-proben bidez osatzeko deialdia onesten

du, ondoren, Kultura eta Turismo Departamentua-Vianako Printzea Erakundean sortzen diren premien arabera, 2004. urtean praktikaldiko lan-kontratuaren bidez kontratatatu ahal izateko.

Ebazpeneko 9.2 oinarriak honela dio: "9.2. Euskarazko jakite-mailaren balorazioa. 0tik 10era bitarte puntuatuko da eta ez da baztertzaila izanen. Ez da inor behartuko proba honetan parte hartzera, eta eremu euskalduneko lanpostuak hautatzeko baino ez da aplikatuko eskuratzen den puntuazioa".

Galdera:

1. Euskarazko jakite-maila zergatik aplikatzen da soilik eremu euskalduneko lanpostuetarako?

2. Euskaraz nork zerbitzatuko ditu eremu mistoko turismo-bulegoetara joaten diren nafarrak edo beste erkidego euskaldunetako biztanleak?

3. Nafarroako turismo-bulegoetara (batez ere, eremu euskaldunera eta mistora) etortzen diren turista euskaldunen kopurua dela-eta, ez al da komeni gure bulegoek zerbitzua euskaraz ere eman ahal izatea?

Iruñean, 2004ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Gizarte Ongizatearen Institutuko eta Osasunbideko zuzendari kudeatzaileen ordainsariei buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Gizarte Ongizatearen Institutuko eta Osasunbideko zuzendari kudeatzaileen ordainsariei buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkez-

tu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan, Gizarte Ongizatearen Institutuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko egungo eta lehengo zuzendari kudeatzaileen lansariei buruz.

Sozialisten taldeak hauxe jakin nahi du:

- Zein dira Gizarte Ongizatearen Institutuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko egungo zuzendari kudeatzaileen soldatak? Soldata gordina eta osagarriak.

- Zein dira Gizarte Ongizatearen Institutuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lehengo zuzendari kudeatzaileen soldatak? Soldata gordina eta osagarriak.

Iruñean, 2004ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Galdera, “Pabilioi urdina” deritzona itxi izanari buruzkoa.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Aralar parlamentu-taldeak “Pabilioi urdina” deritzona itxi izanari buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilari Reyes Berruezo andreak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zenbat lanpostu sortuko dira, eta zenbat amortizatuko, Pabilioi Urdina itxi eta El Vergel egoitzara lekualdatzeak eragindako antolakuntza-aldaketen ondorioz?

2.- Zenbat lanpostu izanen ditu El Vergel egoitzak, Pabilioi Urdineko langileak lekualdatu ondoren? Lanpostuen araberako informazioa (begiraleak, zaintzaileak, zeladoreak, OLTak, zerbitzu orokorrak eta abar).

3.- Zer egokitze-lan egin dira El Vergel egoitzan, orain arte Pabilioi Urdinean lagunduak izaten ziren zaharrak hartzeko?

4.- Nola egin dira balioespenak, laguntza jasozten zuten zaharrak El Vergel egoitzara lekualdatzerakoan?

Iruñean, 2004ko otsailaren 16an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, onkologiako tratamendu eta ikerkuntzako unitaterako kontusailak 2001ean izaniko mugimenduei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea onkologiako tratamendu eta ikerkuntzako unitaterako kontusailak 2001ean izaniko mugimenduei buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2001eko aurrekontuetan, 450 milioi pezetako kopurua daukan kontusail bat agertzen da minbi-ziaren ikerketa eta tratamendurako unitateari zuzenduta. Hala ere, kontusail horretatik ez zen inolako gasturik egin, behinola eginiko idatzizko galdera bati Osasun kontseilariak emandako erantzunaren arabera.

Alderdi Sozialistak plan onkologikoari buruz egin zuen jabelduran, otsailak 5eko (osteguna) Osoko Bilkuran gauzaturikoan, ez zen puntu horri buruzko azalpenik eman; hori dela-eta, hauxe galdetzen dugu:

1. Zer mugimendu izan ditu kontusail horrek?

2. Zer gastu-kontusailak bideratu da 52000 40003 6020 412700 kontusaileko gerakina, eta nork eta noiz baimendu du kreditu-transferentzia hori? Egindako jardueren zerrenda eta haietako bakoitzarengatik ordaindutako diru kopurua.

Iruñean, 2004ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, onkologiako tratamendu eta ikerkuntzako unitaterako kontusailak 2002an izaniko mugimenduei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea onkologiako tratamendu eta ikerkuntzako unitaterako kontusailak 2002an izaniko mugimenduei buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2002ko aurrekontuetan, 2.911.000 euroko kopurua daukan kontusail bat agertzen da minbi-ziaren ikerketa eta tratamendurako unitatearen jardueretara zuzenduta. Hala ere, kontusail horretatik 444.000 euro besterik ez zen bete, 2002ko ekitaldiko Nafarroako kontu orokorrekin erakusten dutenez.

Alderdi Sozialistak plan onkologikoari buruz egin zuen jabelduran, otsailak 5eko (osteguna) Osoko Bilkuran gauzaturikoan, ez zen puntu horri buruzko azalpenik eman; hori dela-eta, hauxe galdetzen dugu:

- |  |  |
|--|--|
| <p>1. Zer mugimendu izan ditu kontusail horrek?</p> <p>2. Zer gastu-kontusailletara bideratu da 540003 52000 6020 412700 kontusaileko gerakina, eta nork eta noiz baimendu du kreditu-transferentzia</p> | <p>hori? Egindako jardueren zerrenda eta haietako bakoitzarengatik ordaindutako diru kopurua.</p> <p>Iruñean, 2004ko otsailaren 17an</p> <p>Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda</p> |
|--|--|

## **Galdera, onkologiako tratamendu eta ikerkuntzako unitaterako kontusailak 2003an izaniko mugimenduei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea onkologiako tratamendu eta ikerkuntzako unitaterako kontusailak 2003an izaniko mugimenduei buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2003ko aurrekontuetan, 2.246.947 euroko kopuru finkatua daukan kontusail bat agertzen da minbiziaren ikerketa eta tratamendurako unitatearen jardueretara zuzenduta. Hala ere, kontusail horretatik 239.341 euro besterik ez ziren bete, Nafarroako 2003ko aurrekontu orokorren betetze-ari buruzko egoera-orriak erakusten duenez.

Alderdi Sozialistak plan onkologikoari buruz egin zuen jabelduran, otsailak 5eko (osteguna) Osoko Bilkuran gauzaturikoan, ez zen puntu horri buruzko azalpenik eman; hori dela-eta, hauxe galdetzen dugu:

1. Zer mugimendu izan ditu kontusail horrek?

2. Zer gastu-kontusailletara bideratu da 540003 52000 6020 412702 kontusaileko gerakina, eta nork eta noiz baimendu du kreditu-transferentzia hori? Egindako jardueren zerrenda eta haietako bakoitzarengatik ordaindutako diru kopurua.

Iruñean, 2004ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, Larrako natur erreserban jardutearen bidezkoatasunari buruzkoa.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Aralar parlamentu-taldeak Larrako natur erreserban jardutearen bidezkoatasunari buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari honako galdera hauek aurkeztu dizkio, Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatzizko erantzuna eman diezaien:

Zioak:

Berriki, Nafarroako Parlamentuak lege bat onetsi zuen, Naturguneei buruzko Legea aldatzen zuena, Larrako natur erreserbaren babespeneko bazter-eremua berriz mugatzeari eta natur erreserben babespeneko bazter-eremuetan kirol-jar-

duerak egiteari zegokienez. Lege berriaren bitartez eginiko aldaketek zenbait zalantza argitu gabe utzi dituzte, Larrako natur erreserbaren mugapean eta haren babespeneko bazter-eremuan jarduteko aukerari dagozkionak.

1.- Larrako natur erreserbaren babespeneko bazter-eremuan ezer eraikitzerik ba al dago?

2.- Larrako natur erreserbaren babespeneko bazter-eremuan lur-mugimenduak egiterik ba al dago?

3.- Larrako natur erreserbaren babespeneko bazter-eremuan elurra zapaltzeko makineria motoreduna erabiltzerik ba al dago?

4.- Larrako natur erreserbaren babespeneko bazter-eremuan zer kirol egin daitezke?

5.- Kirol horiek egin ahal izatea gainerako natur erreserben babespeneko eremu guztietara hedatzeko moduko aukera al da?

6.- "Alta Ruta de Belagua" deritzon jarduera, 33. saioa beteko duena, egiteko aukerari begira, zer-nolakoa da aurreikuspena?

Iruñean, 2004ko otsailaren 17an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko zerbitzu informatikoen balizko pribatizazioari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Nafarroako Gobernuko zerbitzu informatikoen balizko pribatizazioari buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuaren informatika-zerbi-

tzuen administrazio-araubidea aldatzeko inolako asmorik ba al dago?

Zerbitzu horiek pribatizatzeko aukera aztergai al da? Baiezkoan, pribatizatzeko arrazoia zein da?

Iruñean, 2004ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

---

**Galdera, erizain eta laguntzaile bakoitzak solairu bakoitzean zaindu behar dituen pertsona ospitaleratuen kopuruari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak erizain eta laguntzaile bakoitzak solairu bakoitzean zaindu behar dituen pertsona ospitaleratuen kopuruari buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Osasun Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

– Erizain eta laguntzaile bakoitzak solairu bakoitzean zenbat pertsona ospitaleratu zaindu behar ditu?

– Erizain eta laguntzaile bakoitzeko esleituriko pertsona-kopurua zeren arabera aldatzen da?

– Gaueko txandetan zein ratio dago?

Iruñean, 2004ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

**Galdera, Tuterako ospitaleko “Berrikuntza lanak” kontusailari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Tuterako ospitaleko “Berrikuntza lanak” kontusailari buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Osasun Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

2004rako aurrekontuetan, Tuterako osasun-barrutian, Tuterako Ospitalean, “Berrikuntza lanak” kontusaila agertzen da. Haren zenbatekoa 980.000 eurokoa da.

Hauxe jakin nahi da:

– Kopuru hori gelak klimatizatzeari begira ospitalearen aurrekontu arruntak izandako gehikuntza bati dagokio?

– Zer aurrekontu izan zuen Tuterako Reina Sofía Ospitaleak 2003ko ekitaldirako?

Iruñean, 2004ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

## **Galdera, zenbait espezialitatetako kontsultak arratsaldez jartzeak Aurrekontuetan eraginen duen kostuari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak zenbait espezialitatetako kontsultak arratsaldez jartzeak Aurrekontuetan eraginen duen kostuari buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Osasun Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Foru erkidegoko ospitale-sarean, eta itxaron zerrendak arintzeko xedez, zenbait espezialitate-tan arratsaldeko kontsultak ezarri dira, eta, ondorioz, aparteko orduak kobratzen ari dira.

Ohiko jokabidea denez ospitaleetan, batez ere oftalmologia, ginekologia, traumatologia edo operazio-geletan, honako hau jakin nahi da:

– Zenbat aparteko ordu egin dira 2003an foru erkidegoko ospitale publikoetan?

– Zer kostu eragin die aurrekontuei aparteko ordu horiek egiteak?

Iruñean, 2004ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, dohainik ematen diren laguntza bidezko ugalketako tratamenduei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak dohainik ematen diren laguntza bidezko ugalketako tratamenduei buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko Miren Egaña Descarga parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak egin dizkio Osasun kontseilariari, idatziz erantzun diezazkion:

– Laguntza bidezko ugalketako zer tratamendu aplikatzen dira dohainik Nafarroako osasun-sistema publikoan?

– Zenbat tratamendu egin dira 2003. urtean eta 2004ko urtarrilean?

Baldin eta laguntza bidezko ugalketako tratamendu guztiak ez badira gure erkidegoan egiten, zer zentrotara desbideratzen dira? Zer irizpideren arabera? Zenbat tratamendu egin dira gure erki-degotik kanpo 2003. urtean eta 2004ko urtarrilean?

– Laguntza bidezko ugalketako doako tratamendurako zenbat eskabideri erantzun zaio ezetz, 2000. urtetik? Zer arrazoi direla-eta?

Egia al da Nafarroako osasun-sistema publikoak bikotekiderik gabeko emakumeei ukatu egiten dizkiela laguntza bidezko ugalketako doako tratamenduak? Baiezkoan, norik ezarriak dira erabaki horretarako irizpideak, eta legezko zein oinarriren arabera gauzatzen da halako bazterkeria-ekintza?

Iruñean, 2004ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

## **Galdera, SOS Nafarroako sistema informatikoak otsailaren 14an izan zuen funtzionamenduari buruzkoa.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Aralar parlamentu-taldeak SOS Nafarroako sistema informatikoak otsailaren 14an izan zuen funtzionamenduari buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako gal-

dera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Komunikabideetan otsailaren 14an agertutako albiste baten arabera, S.O.S. Nafarroak, bost orduko denbora-tarte batean, ezin izan zien erantzun larrialdietako dei guztiei. Herri Babeseko zuzendari Alberto Otamendi jaunaren arabera, "tartekako" problema hori Nafarroako Gobernuak 1999ko azaroan Positron enpresari esleitu zion sistema informatikoan telelaguntza integratzeari begira zenbait proba egitearen ondoriozkoa izan zen.

1.- Herritarren zenbat deiri ez zitzaion erantzun egoera horrek iraun zuen bitartean?

2.- Mugiarazitako baliabideen zenbat deiri ez zitzaion erantzun?



3.- Zenbat aldiz blokeatu da sistema azken hilabeteotan, dela zerbitzuak Positronen integrazeko problemak izategatik, dela telefonian izandako kanpoko problemak izategatik?

4.- Blokeoak iraun zuen bitartean erantzunik izan ez zuen larrialdirik gertatu ote zen, ba al dago inolako konstantziarik?

5.- Zer-nolako ekintza eta/edo protokolo dauka aurreikusita S.O.S. Nafarroak blokeo eta inkomunikazio egoera horietan larrialdiei erantzuteko?

Otamendi jaunak hauxe adierazi zuen: hasierako kontratuak proba batzuk ezartzen zituela, Positronetik instalaturikoak behar bezala funtzionatzen zuela egiaztatzen joateko. "Hala ere, den-

bora igaro ahala, egiaztapen horiek modernizatu egin dira, eta enpresari esan diogu egin ditzatela, nahiz eta hasierako kontratuan sarturik ez egon". Otamendi jaunaren adierazpen horiei dagokienez:

6.- Zerikusia al dauka horrek Positron Public Safety Systems Inc. delakoarekin urtarrilean eginitako bileran itundutakoarekin, zeinaren indarrez enpresak zigor-multa gehiago izanzen bailituzke apirilera bitartean, ala ondorioa da Nafarroako administrazioak hasierako kontratukoa baino kantitate handiagoa ordaindu beharko duela?

Iruñean, 2004ko otsailaren 18an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, turismo bulegoetara joaten diren bisitarien kopuruari eta jatorriari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak turismo bulegoetara joaten diren bisitarien kopuruari eta jatorriari buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al daki Nafarroan turismo-bulegoetara zenbat bisitari/turista joaten diren eta nongoak diren?

2.- Zein izan da pertsona horien jatorria azken 5 urteotan (urtez urte), Espainiako Estatuko herritarrei dagokienez? (zehatz bedi autonomia erkidegoa)

3.- Zein izan da pertsona horien jatorria azken 5 urteotan (urtez urte), Espainiako Estatutik kanpoko herritarrei dagokienez? (zehatz bedi haien jatorrizko herrialdea)

Iruñean, 2004ko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, “Hotel xarmagarriak” zerbitzua ezartzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak “Hotel xarmagarriak” zerbitzua ezartzeari buruz egindako galdera. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

“Hotel xarmagarriak” deritzon ostalaritza-zerbitzua Nafarroan ezartzeari buruzko zer informazio gaurkotu eta aurreikuspen dauka Kultura eta Turismo Departamentuak?

Iruñean, 2004ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, NGA enpresa publikoarekin zerikusia duten zenbait gairi buruzkoa.**

### *EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak NGA enpresa publikoarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko eledun Begoña Errazti Esnal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Dirudienez, Nafarroako Gobernuak zerbitzu informatikoen pribatizazio edo kanpora ateratzea NGA enpresa publikoak hartuko du bere gain. Hori horrela, honakoak jakin nahi genituzke:

– Noiz, zergatik eta zertarako sortu zen NGA?

– Zer sozietate-kapital du?

– Nor dira administrazio-kontseiluko kideak, eta zer erakunde ordezkatuz?

– Zer lan egin ditu NGAk?

– Zer langile ditu?

– Zer enpresa pribaturen partaidetza dauka?

Iruñean, 2004ko otsailaren 19an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

## **Galdera, Nafarroako Kutxako kontseiluetako kide izateagatik kobratzen diren dietei buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Kutxako kontseiluetako kide izateagatik kobratzen diren dietei buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Kutxako kontseiluetako kide izateagatik kobratzen diren dietei eta gobernukide bakoitzari soldata 12.000 euro igotzeari buruzkoa, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak, UPN eta CDNren botoekin, 12.000 euroko soldata-igoera onetsi zuen, Aurrekontuei buruzko Foru Legean, gobernukide bakoitzarentzat, zeinak indarra hartu bide baitu 2004ko urtariletik aurrera. Soldata-igoera hori, alderdi politikoek eta iritzi publikoaren orde-

kariak kritikatu, gobernua zuzenetsi egin zuen, lehendakariak eta kontseilariak Nafarroako Kutxako kontseiluetako kide izateagatik zeuzkaten dietak galdu izana orekatzeko beharra argudiatuz.

Egoera hori ikusirik, sozialisten taldeak hauxe jakin nahi du:

- Nafarroako Gobernuko lehendakariak eta kontseilariak, zeinek Nafarroako Kutxako kontseiluetako kide izaten segitzen baitute, oraindik ere dietak edo inolako ordainik kobratzen al dute, Nafarroako Kutxako kontseiluetako kide diren aldetik, 12.000 euroko soldata-igoeraz gain?

- Aipaturiko dietei uko egin diete edo uko egiteko asmorik badaukate, euren soldatei 12.000 euro gehitu ondoren?

- Zenbat kobratu dute gobernukideek aurren, urte hasieratik, Nafarroako Kutxako kontseiluetako kide izateagatik?

- Nafarroako Kutxako estatutuak aldatu ondoren, asmorik ba al daukate gobernuko lehendakariak eta, harekin batera, Nafarroako Kutxako kontseiluetako kide diren gobernukideek, dietak kobratzen segitzeko, 12.000 euroko soldata-igoeraz gain?

Iruñean, 2004ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak egiten dituen bidaiei buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuko lehendakariak egiten dituen bidaiei buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, 2004ko urtarilaren 1etik 2004ko otsailaren 23ra bitartean Nafarroako Gobernuko lehendakariak egiten dituen eta Nafarroako aurrekontu orokorretan eragina izan duten bidaiei buruzkoa, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Sozialisten taldeak hauxe jakin nahi du:

- Zer bidaia egin ditu Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2004ko urtarrilaren 1etik otsailaren 23ra bitartean, Nafarroako aurrekontu orokorretan eragina izan dutenak? Zein izan da bidaia horietako bakoitzaren helburua? Nor joan da, lehendakariarekin batera, bidaia horietako bakoitzean?

- Zein izan da bidaia horietako bakoitzaren kostua?

- “Lehendakariaren eta kabinetearen bidaietako gastuak” (25.699 euro) eta “Lehendakariaren gastu askotarikoak” (9.000 euro) kontusailek nola-ko betetzea daukate galdera hau NPAOn argitaratzen den egunean? Xedaturikoa zertan gastatu da?

Iruñean, 2004ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak jaso dituen opariei buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuko lehendakariak jaso dituen opariei buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak bere kargua dela-eta jaso dituen opariei buruzkoa, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Sozialisten taldeak hauxe jakin nahi du:

- Zer opari jaso ditu Nafarroako Gobernuko lehendakariak bere kargua dela-eta, bere azken inbestiduratik?

- Nork egin ditu opariak?

- Non daude opari horiek?

- Zein da opari horietako bakoitzaren prezioa?

Iruñean, 2004ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

## **Galdera, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren zenbait adjudikaziori buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren zenbait adjudikaziori buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioaten:

2004ko otsailaren 16ko 20. Nafarroako Aldizkari Ofizialean Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu zerbitzuaren Partzuergoko buruaren maiztaren 8ko 60/2003 Ebazpenaren zati bat argitaratua dator. Ebazpen horren bidez, KPMG Asesores, S.L. (B-82498650) enpresari esleitu zitzaion Partzuergoaren Plan Estrategikoa prestatzeko aholkularitza eta elkarlanerako laguntza lanak kontratatzea, ehun eta hogeita zortzi mila euroko kopuruarekin eta hiru hilabeteko gauzatze-epea zeukala.

Nafarroako Aldizkari Ofizialaren ale berean argitaraturik daude, halaber, honako bi ebazpenok: batetik, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoko buruak emandako azaroaren 28ko 198/2003 ebazpena, langileak garraiatzeko 5 ibilgailuren hornidura Comercial Arre Motor, S.A. enpresari esleitzen diona. Ibilgailuen modelo Nissan Terrano 3.0 Sport Di Turbo da; diru zenbatekoa, osotara, ehun eta hogeita hamabi mila (132.000) euro; 29 egun naturaleko epean ekarri beharrekoak dira, 3 urteko garantia izanen dute, gehienez ere 100.000 km, eta destinoa hartuko dute Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoan. Bestetik, 206/2003 ebazpena, abenduaren 18koa, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoko buruak emana, Limpiezas y Servicios Maju, S.L. enpresari Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoko suhiltzaile parkeak garbitzeko kontratua esleitzen diona, ehun eta hogeita bat mila bostehun eta berrogeita bat euro, hogeita hemeretzi zentimoko zenbatekoan, (121.541,39 euroan), BEZa barne, 2004ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte.

Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 97.3 artikulua xedatzen duenez, "esleipenaren

zenbatekoa 5.000.000 pezetatik gorakoa baldin bada, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da egindako esleipena adierazten duen iragarki bat, kontratua esleitzen denetik 48 eguneko epean, gehienez ere".

Harrigarria da esleipenaren iragarkia egin izana, legeak ezartzen duen berrogeita zortzi eguneko epea igaro ondoren ez ezik, gauzatze-epea bete ondoren ere, kasuren batean, eta baita esleituriko azterlanaren emaitzak komunikabideren batean argitaratu ondoren ere. Horrela jokatzeak inolako eraginkortasunik gabe uzten du esleipenaren argitarapena; hain zuzen ere, helburutzat duena administrazioaren jardunaren gardentasuna ziurtatzea.

Aipagai ditugunak ez dira kasu bakanak; izan ere, otsailaren 18ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturik baitago Barne zuzendari nagusiak emandako abenduaren 12ko 1937/2003 ebazpenaren iragarkia, 2004. urterako Foruzaingoaren Zerbitzuari atxikitako langileentzako eta Plangintza, Segurtasunaren Koordinazio eta Trafiko Zerbitzuko gidarientzako istripu aseguru eta hango ibilgailuetarako eta makineriarako aseguruak kontratuak esleitzen dituen. Eta, 19. alean, otsailaren 13koa, 1320/2003 Foru Agindua, abenduaren 2koa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak emana, "Astizko lur azpiko urak aztertze zundaketa" izeneko lanak esleitzen dituen.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

– Zergatik iragarri dira esleipen horiek hainbesteko atzerapenez Nafarroako Aldizkari Ofizialean?

– Zer neurri hartu ditu edo hartuko ditu gobernuak, legeak kasu hauetarako xedatzen duena bete dadin?

– Aipaturiko lege-xedapena bete ez izanaren ondoriozko inolako erantzukizun pertsonalik eskatu du edo eskatzeko asmorik du?

Iruñean, 2004ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

---

**G Saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua. Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Kontseiluko kideak hautatzeko arauak. Kide horiek lehenago hautatuak izan eta kargua utzi duten kideak ordeztuko dituzte.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko otsailaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriaren entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko lehendakariak ofizio bat bidali du Parlamentu honetara. Bertan adierazten duenez, pasa den 2004ko urtarrilaren 29an Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko xedapen iragankorrek xedaturiko zozketa egin zen eta, zozketa horren bidez, kargua utzi eta ordeztu behar diren kontseilukideen herena izendatu zen. Zozketa hori egin da, kargua utzi behar dute Eva Laita Martínez andreak eta Juan Andrés Platero Alda jaunak, zeinak Nafarroako Parlamentuak aukeratu baitzituen.

Aurrekoa kontuan harturik, erakunde horren lehendakariak eskatzen du kargua utzi duten kontseilariak ordezteko prozesua hastea eta, era berean, lehenago kontseilari izateari uko egin zion Amanda Acedo Suberviola andrea ordezteko prozesua ere hastea.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua eratzeko, Parlamentuko Mahaiak 2001eko urriaren 8an 18/2001 Foru Legeko 23. eta 25. artikuluetan xedatutakoa garatu eta aplikatzeko arauak onetsi zituen. Arau horietan ezartzen zen Legebiltzarrak izendatu behar dituen kontseilarien hautatze prozedura. Komenigarria dirudi, aipatu arauak oinarri hartuta eta haietan ezarritakoari jarraikiz, beste batzuk ere ematea erabaki honek helburu duen berritze prozedura arautzeko.

Ondorioz, Erregelamenduko 37.1.9. artikulua-rekin bat, hona ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak hautatzeko arauak onestea. Kide

horiek lehenago hautatuak izan eta kargua utzi duten kideak ordeztuko dituzte.

1. Parlamentu-talde bakoitzak hiru hautagai aurkeztu ahalko ditu gehienez; betiere, aipatu 18/2001 Foru Legeko 23.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak izan beharko dute.

2. Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idatziz aurkeztuko dituzte hautagaiak parlamentu-taldeen, eta, idatzi horretan, proposatutako hautagaien onarpena jaso beharko da. Proposatutako hautagaien 18/2001 Foru Legeko 25. artikuluan aipatzen den bateraezintasunik ez dutela erabaki ahal izateko, proposamen-idatziei aipatu bateraezintasunik ez dutelako aitortzea edo egiaztagiria erantsiko zaie, hautagaien egina.

3. Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko dituzte parlamentu-taldeen Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide izateko hautagaiak.

4. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea amaiturik, proposatutako hautagaien baldintzak betetzen ote dituzten erabakitzeari ekingo dio Mahaiak, eta ondoren, hala bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

5. Hautagaiak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak jarritako egunean, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordeko lan bilera batean agertuko dira, parlamentariak haien merezimenduak ezagutu ditzaten.

6. Kontseiluko hiru kideak batera hautatuko dira, Osoko Bilkuran eta isilpeko bozketaren bidez.

7. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak, zenbat postu bete behar

diren, beste horrenbeste izen jarri ahalko ditu txar-telean.

8. Mahaiak botoak zenbatu eta hautatutzat aldarrikatuko ditu botorik gehien lortu duten hiru hautagaiak; hautagai bakoitzak, betiere, Legebiltzarreko kideen bi herenen botoak lortu beharko ditu gutxienez, hots, hogeita hamahiru boto.

9. Berdinketarik badago eta horrek Parlamentuaren proposamenean eragiten badu, berdinketak boto kopuru berbera lortu dutenen arteko

beste bozketa baten bidez ebatziko dira. Berdinketak bere horretan segitzen badu, hurrenez hurreneko bozketak egingen dira boto kopuru berbera duten hautagaien artean berdinketa desegin arte.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2004ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutzako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b> Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat ..... 41,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 1,05 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,23 »	